

2005eko martxo

36. zenbakia

Aikor!

txorierriko caritaskaria



**Iker Amarika eta
Txaber Zabala,
pilotariak**

**Tanto bi
Txorierriako**



Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarte
Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili,
Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47

e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando
Larrondo, Jose Angel Mentxaka,
Alberto Legarreta, Gaizka Eguskiza,
Mari Tere Onaindia, Amagoia
Guezuraga, Belen Gana, eta Aritz ta
Nagel.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Juanxu Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier
Oruetxebarria, Oihana Astobeta,
Maripi Agirre, Iñaki Astorkiza,
Amaia Rementeria, Bestorrene,
Pospoli, Hankapalu, Kaleko, Atotz
Goikoetxea, Juan Luis Goikoetxea.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Gaizka
Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-
9322

Aikor! aldizkariak ez dau
bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen edota
eritxien erantzukizunik.



Eusko Jaureritza



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Saria

diruz lagundutako aldizkaria



24 Iñaki Dobaran



20 Derioko eskolako ikasle ohiak



14 Mª Jose Diaz



11 Koldo Ameztoy



26 Txorierriko Caritas



22 Korrika 14

AURKIBIDEA

4Eritxia **5**Gutunak **6**Laburrak eta albisteak **11**Gurean izan da...
Koldo Ameztoy **12**Gazteen txokoa **13**Gaztea eta... Aiala Lopez
14Mª Jose Diaz **16**Iker Amarika eta Txaber Zabala
20Derioko eskolako ikasle ohiak **22**Korrika **24**Iñaki Dobaran
26Txorierriko Caritas **28**Osasuna **29**Teknologia
30Txorierri ezagutu **31**Aikormusika **32**Sukaldaritza
33Denborapasa **34**Agenda

AIKOR! aldizkariaren laguntzailea izan gura badozu, hemen dozu erea:

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonoa _____ **e-posta** _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Egin zure aukera: 20 euro _____ **beste kopuru bat** _____

**Orri hau helbide honetara bidali: Aresti, 2 / 48170, Zamudio
zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dogu!**

Azken aldi honetan...



ASIER ORUETXEBARRIA
(Irakaslea)

Azken aldi honetan hainbatetan entzun edo irakurri dot garapen jasagarria, Kiotoko ituna, hirugarren munduaren lehen munduratzeta, eta holango hainbat eta hainbat hitz eder. Guztiek daukie munduaren eta gizakia- ren batasun eta bardintasun kutsua. Baina hori, posiblea ete da? Posiblea bai baina, zoritxar- reez propablea ez. Posiblea bai

herri garatuek nahi izango balebe, ekonomikoki egingarria dalako. Probablea ez, ez jaku interesatzen, horretaz ere ziur nago. Oreka giza-ekonomikoa lortzeko, ditugun baliabide naturalak mugatuak dirala jakinik, goian dagoanak bajatu beharko dau eta behan dagoa- nak igon. Ez dot uste bajatzeko gogo handirik daukagunik.

Hurrengo lerroetan lortutako datu batzuk emongo dodaz bar- dintasun horrek ekarriko leukezan ondorioak aitatuz.

Gaur egun Txinak mila eta hirurehun milioi biztanle inguru ditu, Estatu Batuekin pertsonako erregaiaren kontsumoan parekatuko balitz urtean larogei milioi kupel beharko leukez. Urteko ekoizpen mundiala hirurogeita hamalau milioioika da. Paperaren kontsumoa ere parekatuko balitz, kasu honetan ere munduko ekoizpena behar- ko leuke bere beharrezana asetzeko. Txistea emoten dau, baina txi- natar gehienek ez dabe komuneko paperik erabiltzen. Guzti hori kontutan hartu barik Indian mila milioi biztale inguru dirala, edo hirugarren munduko hainbeste herri.

Erromatarren garaian munduan 250 milioi gizaki bizi ziran, XV. mendean 500 milioi, 1810. urtearen inguruan 1000 milioi, 1930.ean 2000 milioi, 1975.ean 4000 milioi, gaur egun 6000 milioi lagun gagoz mundu honetan. Nazio Batuen ustez 2040. urterako 8000 milioira helduko gara. 70. hamarkadan sortutako eztanda demokafikoa moteltzen doa beraz, baina ez beste izaki bizidun guztien antzera hilkortasun-tasa handitu dalako, ugalkortasun-tasa bajatu egin dala- ko baino, naturala litzatekenetik urrun.

Agian hirugarren munduaren lehen munduratzeta baino lehe- nengo munduaren erosotasun eta kontsumo neurrigabea murriztu beharko genduke. Gure planetaren baliabide naturalak ez dira amaiezinak. Tsunamiak, lurrikarak, lehorteak, uriolak eta ..., ez ete dira naturaren zigor hutsa izango gure burubakokeriari erantzuteko, gure handinahiari hezi bat ipintzeko?

Azken aldi honetan buruari gura baino buelta gehiago emon deusadaz holangoetan pentsatzen. *La tierra vista desde el cielo* (Lunweg argitaletxea, Yann Arthus-Bertrand) liburuak gure plane- taren ikuspuntu barria agertarazo deust; Lurreko argazki zoragarri- z eta artikulu interesgarri- z osotutako liburua da.

Aipuak

“Es k u - pilotan ez da hogeita- binako-

rik izaten. Jokoa ari direlarik behintzat ez. Guk umetan egi- ten genuen hogeitabina. Hogeitabana berdinduz gero, saioa luzatzeko asmoz, batzuek besteei bi tantoren aldea kendu arte jolasean segi- ko genuen. Horrelakoetan bai, egiten zen hogeitabina.

Jolasean ari ginenelako, eta ez jokoa”. Horrelaxe diosku Andoni Egañak argitaratu berri duen liburuan, *Hogeita bina* lan ederrean, hain zuzen ere.

Nik, euskara edozertarako erabili daitekeela eta era- bili behar dela pentsatzen duen horietakoa naizenez, jolasean ere erabili behar dela uste dut. Baina azken hamarkadotan, ikusita gero eta lagun gehiagok dakiela euskara, baina ez dutela erabiltzen, behin eta berriro etortzen zait burura euskararekin jokoa ez ote gabiltzan susmoa.

Ondo dakizuenetz, jokoa bagabiltza, ezin dugu hogeitabina egin: bata irabazi behar du, eta besteak galdu. Gauza serioa, beraz.

Gure partida hau irabazteko argi izan behar ditugu ideia batzuk.

Batetik, itxurakeriak alde batera utzi eta erabaki dezagun behingoz euskaraz bizi gura dugun ala ez. Zenbat bider ez ote dugu entzun “hay que apoyar a la Korrika” erdara ezin garbiagoan!

Beste batetik, argi eduki euskarari diogun amodioak ia urtuta daukala euskara bera. Abestiak dioen bezala “maita nazazu gutxiago eta goza nazazu gehiago”.

Azkenik, esan behar dut euskaldunok herri zahar bat bagara ere badaukagula zer pentsatu asko. Askotan era- kusten dugunez, jaiok gara gure miserien erruak beste batzuei leporatzen, eta horretan, inoiz zuzen ibili bagara ere, euskararen etorkizunari eta erabilerari dagokienez behintzat, Artzeren esaldi ospetsuak badu arrazoirik: “Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik”. Atera kontuak, ba.

Beharbada, joan dira jolasean ibiltzeko garaiak, eta jokatzeta dagokigu. Horretarako, aintzat hartu beharko genuke Atxagarena ei den esaldi hau: “Jokoa, eskutik dabilenak irabazten du beti”.



IÑAKI ASTORKIZA
(Irakaslea)

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikori!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Tootan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

Txorierriko errepideak

EuroRAP elkarteak berriki Euskal Autonomia Erkidegoko errepideak aztertu ditu. Elkarre horrek Europako automobil elkarte garrantzitsuenak biltzen ditu, horien artean Bizkaiko, Arabako, Gipuzkoako eta Nafarroako RAC elkarteak.

Azterketa horren emaitzen arabera, EAEn oso istripu gutxi daude, zenbateko trafikoa dagoen kontuan hartuta. Txosten horretan EAEko errepideak aztertu dira, euren arriskuaren arabera sailkatuz: oso arriskutsuak, arriskutsuak, ez oso arriskutsuak, arrisku txikikoak eta arrisku oso txikikoak. Sailkapen hori egiteko hiru faktore hartzen dute aintzat: istripu kopurua (eta

euren nolakotasuna), autoen joana eta kilometro kopurua. Hiru faktore horiek gurutzatuta ratio bat ateratzen dute eta hori erabilita sailkatzen dituzte errepideak.

Azterketa horretan, zelan ez, Txorierriko errepide nagusiak ere agertuko zaizkigu, sei hain zuzen ere: Aldekone eta Loiu artekoa, Asua-Plentzia, Asua-Erletxe, Derio-Mungia, Derio-Bilbo (Egiritatik) eta Asua-Bilbo (Enekuritik).

Txorierrin ez dago oso arriskutsua den errepiderik. Dena den, arriskutsuak diren bi errepide badaude: Aldekone eta Loiu artekoa (ratioa 147,6) eta Asua eta Plentzia artekoa (ratioa 125,5). Beste guztiak arrisku txi-

kikoak edo oso txikikoak dira: Asua eta Erletxe artekoa (ratioa 58,2), Derio eta Mungia artekoa (ratioa 34,9), Asua eta Bilbo artekoa (17,5) eta Derio eta Bilbo artekoa (ratioa 8,8).

Datu horiek ikusita, Txorierriko errepideak oro har arrisku txikikoak direla ematen du. Hala ere, kontuan izan edozein errepide izan daitekeela edozein momentutan arriskutsu. Izan ere, datu horiek estatistikokiak dira eta, beraz, errealitatea zatikatzen dute hobeto ulertzeko. Hortaz, zatitze horrek ez gaitu itsutu behar eta ez dugu pentsatu behar errepideak arriskutsuak ez direnez, edozer egitea dela libre. Kontuz eta arretaz gidatu (edo autoa etxean utzi).

Txema Rodríguez

Otsailak 9: Iskander gogoan

Egunez egun egindako poesia hau, barriro be, zuretzako da, Iskander. Honegaz gorantziak bialtzen deusudaz hemendik, gutariko asko oraindik gogoratzen zaitugu eta. Ondo ibili goialdetik eta behekoak ez ahaztu. Ez da izango kalitate handikoa, baina bihotz zatia daroazu olerki honegaz: irakurri eta bihotzean gorde. Gorantziak ez ezagututako osaba ezagutuaren-tzat, Mikelentzat, baita nire beste bihotzeko osabarentzat ere, Agusentzat: esaiozu nire partez, gauero bere irribarrea datortela burura, ez dodazala ahaztuten bere hatzamar bihortuagaz irakatzitako trebeziak eta nigaz daukadala nire bihotzean. Eskerrik asko bihotzez.

Bihotzetan ahaztu ezinik

Bertan barriro gagoz batera,
Iskan laguna, biok olgetan,
Hodei artetik agurtu dogu alkar
Otsaileko bederatzi honetan,
Taldea osotu dogu laurok
Zuek zerutik, ni ametsetan
Egundoko partida musean!
Teilapean guztiok baketan,
Aurkari alai Agus eta Mikel
Ni eta zu pozik irribarretan.

Ametsetan jarraituko dogu

Han eta hemen danok gauero,
Aurrerantzean zugaz gehiago
Zagozelako nonbait bero-bero,
Taupaden bidez hona bialtzen
Umorea eta indarra egunero.

Eskerrik asko jokoagaitik
Zenbat partida eta hau onena,
Irabazia ikusezina
Niretzako hau ez da lehena.
Izan zintzoak eta laster arte,
Kantariok, ez da eta azkena.

Mikel Zarate Yurrebaso

Sei zamudioztarrek parte hartu dute Iker laborategiaren ikerketa batean

Iker laborategiak HIPVAL proiektua jarri du martxan. Proiektu hau Frantzia-ko Ikerketa Zientifikoko Estatuko Zentroak babesten du eta Zamudioko sei pertsonak hartzen dute parte bertan.

Ikerketa honek genetika eta euskalkiak lotzen ditu eta Euskal Herrian, Aragoi, Burgosen eta Kantabrian egingo da. Ikerketaren helburua bikoitza da: alde batetik, herrialde hauetako biztanleek arbasoren bat komunean ba ote duten

aztertzea, eta, bestetik, tokian tokiko euskalkietan hitz egiten dutenek ezaugarri genetiko berezirik baduten ikustea.

Proiektu horretan hirurogei urtetik gorako mila eta berrehun gizonek hartuko dute parte. Gizonek bete beharreko baldintza da lehenengo zortzi abizenak euskaldunak izatea. Odol-lagina ateratzeaz gainera, elkarriketa egingo zaie, ahoskera eta esaldien estruktura aztertzeko.



Martin Urrejola Bizkaiko entrenatzaile eskolako zuzendari izendatu dute

Martin Urrejola zamudioztarra entrenatzaile eskolako zuzendari izendatu du Bizkaiko Futbol Federazioko Zuzendaritza batzordeak. Zamudiokoa Deustuko futbol taldearen entrenatzailea da eta lau urtean izango da kargu berrian.

EITB24 Zamudioko Parke Teknologikotik


Euskal Irrati Telebistak 24x7 berrien zerbitzua abian jarri du www.eitb24.com helbidean. Zerbitzua euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez emango da eta informazioa etengabe berrituko da. Erredakzio nagusia EITBk Zamudioko Parke Teknologikoan duen filialean kokatu da.

Parke Teknologikorako autobusa

Zamudioko tren-geltokitik Parke Teknologikora joateko zerbitzu berria eskaintzen du Euskotrenek martxoaren hasieratik. Autobus-lantzagailua Deusto-Lezama trenbidearen luzapena izango da eta astelehenetik ostiralera ibiliko da, jaiegunetan izan ezik. Asteazken zehar hirurogeita hamaika ibilbide egingo ditu. Ibilbidean sei geltoki izango dira.

Gure Etxearen 20. urteurrena

Larrabetzuko Gure Etxea elkarteak hogeitau urte bete ditu. Urteurrena ospatzeko, jaialdia egingo dute apirilaren 15ean eta hainbat ekitaldi izango dira arrastiko bost eta erdietatik aurrera; horien artean, antzerkia eta jotak.



Merkataritza eta Emakumea Marrazki Lehiaketa

Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatu zen martxoaren 8an, eta Merkataritza eta Emakumea I. Marrazki Lehiaketa antolatu zuen Derioko Merkataritza eta Zerbitzuetako Elkartek. Bertan ehun eta hirurogeita hamar umek baino gehiagok hartu zuten parte. Irabazlea Eztizen Sanchez Montes izan zen. Saritzat berrogeita hamar euroko txekia eman zion M^a

Mar Mellado elkarteko presidenteak. Neskak elkarteko dendetan gastatu ahal izango du diru hori.

Beste alde batetik, eta egun horretako ospakizunen barruan, emakume dendarien aldeko afaria ere antolatu zuen Derioko elkarteak.

Testua eta argazkia: Amaia Rementeria

Hegazkin-pilotuen eskola ireki dute Sondikan

Aerolink Euskal Herriko lehenengo hegazkin-pilotuen eskola ireki dute Sondikako aireportu zaharrean martxoan. Ikasleek urte biko kurtsoa egin beharko dute eta hura gainditu ostean, pilotu pribatu zein pilotu komertzialerako lizentzia emango zaie, baita hegaldiko irakasle-titulua ere. Kurtsoak 54.000 euro balio du eta bertan izena emateko hurrengo baldintza hauek bete behar dira: adin nagusikoa izan, mediku-azterketa gainditu eta batxiler-tituluaren edo horren baliokideren baten jabe izan.

Praktikek lehenetasuna izango dute ikastaroan eta pilotugaiek hirurehun orduko hegaldia egingo dute Diamond hegazkinak gidatuz. Horrezaz gainera, meteorologia, aireko zuzenbide eta nabigazio-klaseak jasoko dituzte, besteak beste.

Beste alde batetik, helikoptero komertzialak gidatzeko eta hegazkineko laguntzailea izateko ikastaroak egiteko aukera ere egongo da Aerolink eskolan. Halaber, aireontziak gidatzen ikasi nahi dutenentzako ikastaroak emango dira.

Erandioko toponimia aztertuko dute

Erandioko Udalak herriko toponimia bildu eta arautzeko bekarako deialdia egin zuen eta Labayru Ikastegiko Iratxe Lasak irabazi du. Lana hamalau hilabetean egingo du, Patxi Galé Euskaltzaindiko Onomastika batzordekidearen zuzendaritzapean.



Zaharrentzako jaia Txorierrin

Txorierriko udalek zaharrentzat antolatutako jaia laster egitekoa da. Jai horrek atal bi ditu: hitzaldia eta jaialdia. Kepa Lizarraga eta Javi Sierra Diputazioko kirol medikuen hitzaldiaren gaia hau izango da: ariketa fisikoa eta kirola egitea zein mesedegarria eta komenigarria den zaharrentzat. Hitzaldi hori apirilaren 4an emango da Sondikako Kultur Etxean, arrastiko 6etan; hilaren 5ean, Derioko Nagusien Etxean; 6an, Loiuko Adintsuen

Etxean; 9an, Lezamako Adintsuen Etxean; 11n, Larrabetzuko Gure Etxean, eta 19an, Zamudioko Adintsuen Etxean.

Beste alde batetik, maiatzaren 2an jaialdia egingo da Derioko kiroldegian. Goizean hainbat joko izango dira, eta bazkaldu ostean sariak eta opariak emango zaizkie zaharrei. Arrastian dantzaldia egongo da. Jaialdian parte hartzeko apirilaren 7a baino lehenago eman behar da izena Txorierriko zahar etxeetan.



Ikastaro berriak

Derion

Apirilerako hiru ikastaro antolatu ditu Derioko Udaleko Kultura Sailak. Lehenengoa gizonen zuzendutako sukaldaritza ikastaroa da. Apirilaren 4an hasiko da eta astelehenetan emango da, arrastiko 7etatik gaueko 9ak arte. Guztira, hamar eskola izango dira.

Beste bat erretzeari uzteko ikastaroa izango da: apirilaren 4an hasiko da eta astelehenetan emango da, arrastiko 5etatik 7ak arte. Guztira, bost saio izango dira.

Apirilaren 6an gurasoentzako eskola hasiko da, eta eguaztenetan emango da, arrastiko seiak eta laurdenetan.

Txorierriko Mankomunitateak finantzatzen ditu azkeneko ikastaro bi horiek.

Ikastaro horietan izena eman nahi dutenek Udaletxera jo dezakete edo, osterantzean, kultura@deriokoudala.net helbidera mezu elektronikoa bidali.

Txakolin Eguna

Larrabetzun

Apirilaren 10ean, domekan, Txakolin Eguna ospatuko da Larrabetzun, goizeko 10etatik arrastiko 2 eta erdiak arte. Egun hau Larrabetzuko Udalak antolatzen du eta hainbat postu ipiniko dira Herriko plazan. Beste alde batetik, apirilaren 7an txakolina dastatzen ikasteko ikastaroa emango da arrastiko 6etatik gaueko 9ak arte. Ikastaroan parte hartu nahi dutenek apirilaren 4tik 7a bitartean eman dezakete izena liburutegian.

Hiru enpresa-parke zabalduko dira Txorierrin



Finanzas.com webgunean azaldutakoaren arabera, Neinor enpresak lur industrial urbanizagarria erosi du Txorierriko hiru alderditan. Enpresak 70 milioi euro inbertitu ditu eta enpresak jartzeko hiru parke zabaltzeko asmoa dauka bertan.

Lehenengo proiektua Sondikako Zangroiz industrialdearen luzapena izango da eta 131.688 metro koadroko lurrak hartuko ditu. Horretan 36 miloi euroko inbertsioa egin du enpresak.

Asuan Sakoni enpresa-parkea eraiki-

ko dute eta 68.682 metro koadro izango ditu. Bertan berrogeita hamabi enpresa txiki eta ertainetarako lekua izango da. Proiektu honetan 12 milioi euro inbertitu dituzte.

Azkenik, Loiuko aireportuaren aurrean Astikene enpresa-parkea zabalduko dute. Industria-jar duerez gainera, komertzioak, hotelak eta bulegoak egiteko asmoa dute bertan. Astikenek 108.301 metro koadro ditu eta horretan 29 milioi euro ordaindu ditu enpresak.

Sutea Larrabetzun

Martxoaren 18an, sutea izan zen Larrabetzuko landa bateko sastraketan. Suhiltzaileek sua kontrolatu zuten, baina ordu batzuk eman zituzten bertan, beroak sutea berriro berpiztuko ote zuen. Beste alde batetik, inguruko baserri bateko emakume bat toxikatu zen suteko keaz; hala eta guztiz ere ez zen ospitalera eroan beharrik izan.

Liburuaren Eguna Zamudion

Apirilaren 23a Liburuaren Eguna da, eta Zamudioko Udal Liburutegiak ekitaldi berezia antolatu du egun hori ospatzeko: Oihulari Klown taldeak ipuinak kontatuko ditu liburutegian bertan.

Alzheimer eta esklerosi anizkoitzari aurre egiteko bide berriak aztertuko ditu Neurotek laborategiak.

Nerbio-sistemaren gaixotasunei aurre egiteko bide berriak ikertuko ditu Zamudioko Parke Teknologikoan kokatuta dagoen Neurotek laborategiak. Zientzialariek esklerosi anizkoitza eta Alzheimerria aztertuko dituzte bereziki. Gaixotasun horien base molekularrak analizatuko dira, sorrarazten dituzten zelula-irregularitasunak topatzeko eta tratamenduak hobetuko dituzten farmako berriak egiteko.

Karmen Irizar Topaguneko presidenteorde izendatu dute

Martxoaren 19an, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak Urteko Batzar Orokorra egin zuen Durangon, eta presidenteordea eta batzordekide berriak aukeratu zituzten bertan. Beste alde batetik, beste sei euskara elkarte federazioan sartzea onartu zen eta 2005eko lan ildoak zehaztu ziren.

Karmen Irizar Azkoitiko Maxixatzen elkarteko presidentea Topaguneko presidenteorde izendatu zuten; Irizar euskal eta ingeles filologian lizentziatua da. Horrez gainera, hiru batzordekide ere hautatu ziren: Amaia Alberdi, Iurretako Gurien Bai elkartekoa; Maider Urrutia, Mungiako Mungia Euskaldunduz elkartekoa, eta Idoia Illara-mendi, Hernaniko Dobera elkartekoa.

Federazioan beste sei euskara elkarte ere onartu ziren: Belaiki Baranbioko elkar-atea, Trolebu Aulestiko elkar-atea, Illati Idiazabalgoa, Aizpea Irurtzungoa, Karrikiri Iruñekoa eta Mailope Araitx-Larraun-
goa.

Federazioaren aurtengo helburua sustapen arloari nortasun propioa ematea izango da. Horretarako, sailkako helburuak gainditu eta euskara elkartearen sustapena landuko duen arduraduna izango dute. Elkarteei eskaintzen zaizkien zerbitzuei eutsi eta horien garapena ere bultzatuko da. Asteburuetan.com egitaraua indartu nahi da eta Kultur Errota eta Euskarazko Film Laburren 2. Zirkuituaz gainera, antzerki amateur ziklo berria antolatzeke asmoa daukate. Hedabideei



dagokionez, euskarazko telebistak sustatzeko lana egingo du Topaguneak eta euskaldun berrientzako gidaliburua argitaratuko dute. Euskararen erabilera sustatzeko sentiberatze lana ere egingo dute. Proiektuak aurrera eramateko 879.000 euroko aurrekontua izango du Federazioak.

Azkenik, Topaguneak Soziolinguistika

Klausterrean eta Tokiko Elkartearen parte hartzea berretsi zuten kideek Batzar Orokorrean. Lehenengoa irabazi-asmorik gabeko elkar-atea da eta euskararen berreskurapen eta normalizaziorako soziolinguistika-ezagutza garatzea du helburu. Tokiko Elkar-atea iaz sortu zen euskarazko tokiko telebisten jarduna indartzeko.

“Kontalaria gauza intimoa izan da Euskal Herrian, etxekoa”

Ahots erakargarria, entzuteko goxoa, ondo modulatzeko dakiena, iparraldeko doinu argia, hitz jarria antzerki keinuz lagunduta. Ipuin kontalari euskaldunak ezagunena dogu Lapurdin bizi dan behenafartar hau. Ez daroaz alperrik 22 urte ofizio honetan. Bideetan edurra egon arren, puntuan agertu da Derioko Kultur Aretora. Aretoa bete-beterik dago, 50 ikusle inguru egongo dira, isiltasuna da nagusi, hegazkinen zaratak bakarrik urratua. Saio ostean alkarrizketa egin deusagu.

Zeu izan zinen plazaz plaza ipuinak euskaraz kontatzen hasi zan lehenengoa?

Nik ez dot lehenago inor egoan ala ez ikeritu. Beste eskualde batzutan kontalaria ibiltzen zan, hemen bertsolariek egiten eben, baina bertsoen bidez. Kontalaria gauza intimo modura gelditu zan, etxekoa zan. Ez dot ikertu baina ez dot uste egon danik.

Zelan dago kontalarien mundua?

Euskal Herrian badagoz ibiltzen diranak, gaztetxoak. Alkartzen gara batzutan, baina harreman estu-esturik ez daukagu. Bakotzak bere bidea egiten dau. Ez dogu festibalik antolatzeke erarik izan, denbora behar dalako. Iparraldean lan gitxi egiten dot kontalari modura. Baionan badago talde bat frantsesez aritzen dana, osterantzean kontalari euskaldunak, bat edo bi, baina profesionalki hasiko danik ez dago. Frantzian mogimendu zabala dago, orain 25 urte inguru hasi ziran hainbat, besteen barri jakin barik. Festibalak egiten dira, kontalari barri asko dago.

Antzerkiaren munduan ibilia zara?

Bai, antzerkia egin dot, dantza, maskaradak... Espresio bide asko, musika tresna batzuk, kantua, ahotsa landu, zer egingo neban jakin barik.

Nondik hartzen dozuz ipuinak?

Gehienbat liburuetatik, etnologo edo iker-tzaileen lanak. Ipuin barriak bere asmatzen



Ipuin barriak asmatu eta zaharrakaz lotzen ditu Ameztoyk

dodaz eta zaharrakaz lotu... Zaharrak ez dira lehen kontatzen ziran modura kontatzen, oraingo erara baino. Idatzi bere, gauza batzuk idatzi nebazan herrietako esaera zaharrakaz. Lapurdiko 30 herri, 30 izen. Behenafarroan be bai, eta Zuberoa ez dot egin oraindik. Irrati baten lan egiten neban eta idatzi egiten neban.

Ipuina beti kontatzen dozu era berean?

Irudi barriak irtetzen jataz kontatzerakoan, oso librea da, inprobisazioa be handia da. Ez dot bi bider bardin kontatzen, gero euskarara bere egokitzen dot, oso interesgarria da aberasteko, hemengo hitzak nahastatu... Frantsesez bere egiten dot festibalean, Frantzian, Quebec-en... Kontatzeko leku askotan ibiltzen gara, kobazuloetan, kanpoan. Txarrena, inguruko zarateagaz egin behar danean izaten da. Umeakaz daukat


arazotxoak, telebista-umeak dira, zapping egiten dabe, eta gatxagoa da.

Jarraitzeko asmorik bai?

Bai, bai, badago lana. Kontalari moduan lan egiten dot, baina beste arte batzukaz be bai. Badaukat ikuskizun bat musikari bategaz, gitarista kantaria da. Beste bat Hazparneko neska dantzari batzukaz egiten dot, eta soinulari bategaz be bai. Gehienbat musikari inprobisatzaileak dira, ipuinaren eta musikaren arteko alkarrizketa-dialogoak egiten dira. Abendurako dantzari bakar bategaz prestatzen nago ikuskizuna, musika, usaimena, dastamena... Ipuina hor dago beti gauzak lotzen, askatasunean. Badago aukera emanaldiak beste arte batzukaz lotzeko.

Testua eta argazkia: Bestorrene

*“Umeakaz daukat
arazotxoak, telebista-
umeak dira, zapping
egiten dabe, eta
gatxagoa da”*



Sexualitaterik ez, biolentzia bai

Batzuen moral bikoitzak harritu egiten nau askotan. Irudiek mindu ahal dute, eta hitzek? Adierazpen askatasunaren alde nago –guztiok alde gaude, ezta?–, baina hitzak baino irudiak nahiago ditut batzuetan.

Polemika ederra sortu du Miguel Bosé abeslariaren azken bideoklipak. Nacho Vidal aktore pornoak zakila erakusten du bertan, eta ni musika-kate batetik bestera ibili naiz, polemika horren sorburua ikusi nahian. Eta *Los 40 TV* katean topatu dut.

Igerileku batean agertzen da Vidal, neska baten atzetik, jolasean. Eta bere lantresna erakustear dagoenean, txas!, koadrotxo bat jartzen diote. Neskak ere bere koadrotxoa darama aluan. Titiak, berriz, ikusi ahal dizkiogu garbiki.

Estatuan *el destape* sortu zenetik hona, telebistan gaur bai eta bihar ere titiak ikusten ohituta gaude. Eta zer dute titiek? Ba, ez dakit. Nik bi dauzkat eta zoragarriak dira: sexuaz gozatzeko balio didate eta ama izanez gero seme-alabak eradoskitzeko erabiliko ditut. Baina zer txarra dute zakilek? Hauek ere sexuaz gozatzeko balio dute eta semena edonondik atera beharko da, ezta? Eta aluek? Umeak Paristik datozela gezur hutsa da, ezta?

Sexua gauza normala dela eta sexualitateari buruz askatasun osoz, *isilkeria* barik, hitz egin behar dugula esan didate

beti etxean zein eskolan. Ez dut ulertzen, orduan, kate horren buruen jarrera. Ez dut ulertzen zergatik titiak erakutsi ahal diren, baina zakilak eta aluak ez. Ez dut ulertzen zergatik zentsuratu behar diren horiek,

*“Hitz gogorrek arazorik
sortzen ez dioten
musika-kate bat topatu
dut; sexu-organoek,
berriz, lotsa
ematen diote”*

telebistatik eta zinematik gauza bortitza-
goak botatzen badituzte.

Los 40 TV kateari erreparatu diot berri-
ro *zappinga* egiten. Telebistako pantailan
hip-hopeko talde bateko bideoklipa ager-
tu da, eta beheko aldean gaztelaniazko
azpitoluak: “Pistolek ez dute hiltzen,
raperok bai. Hilko zaitut, putakume...
Borrokan hil diren anaiak gogoan ditugu:

Urlia! Goian bego. Sandia! Hilerrian
dago...” Eta halako leloak bota zituzten
indarkeria goratuz.

Zakila edo alua baino lotsagarriagoak
dira hitz horiek, nire ustez. Biolentzia gai-
tzezen ematen dugu bizitza osoa, eta hitz
gogorrek arazorik sortzen ez dioten musi-
ka-kate bat topatu dut nik orain; sexu-
organoek, berriz, lotsa ematen diote. Ala
hitzak baino ez dira hitzak?

Titiak, zakila, alua eta gorputza amo-
dioa egiteko eta gozatzeko ditugu, ez
ezkutatzeko. Eta naturaltasun osoz ikusi
beharko genituzke, konplexurik, beldu-
rrik edo ikusmin erorik ez sortzeko ino-
rrengan. Hitzak, zoritxarrez, isilarazi
beharko lirakeke batzuetan, besteak mes-
pretxatu eta mehatxatzeko erabiltzen
badira, batez ere.

Migel Boséren bideoklipa beste musi-
ka-kate batean zentsuratu gabe ikusi
ondoren, hurrengo galdera hau egiten diot
neure buruari: kate batzuetako buruek
zakil txikia izango dute, agian?

Testua: Hankapalu

Aiala Lopez, erizaina

“Ezetz esan baino, hobe duzu telefonoa ez hartzea”

Azken momentuan erabaki zuen Lezamako Aialak erizaintza ikastea. Gaur egun Galdakaoko ospitalean dabil lanean, eta lanari buruz hitz egin du AIKOR! aldizkariak hogeita lau urteko neskarekin.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Karrera amaituta aukera bi dituzue: sanitate publikoa edo pribatua...

Sanitate pribatuaren lan-baldintzak askoz eskasagoak dira, lan gehiago egiteaz gainera txarto ordaintzen delako. Egoera hobea da Osakidetzan, baina plaza dutenentzat. Karrera bukatu ondorengo bi urteetan oporretan ordezkoak egiteko deitzen zaituzte normalean; hurrengo urtean lan-poltsan sartu eta maizago hartzen zaituzte. Baina ez dira kontratu onak; hilabeteak dira, aste bikoak, egun batekoak... Telefonoaren zain egon behar duzu, edozein momentutan deitu dezaketelako. Interesatzen ez bazaizu, hoba duzu telefonoa ez hartzea, ezetz esaten baduzu agian ez dizuelako berriro deituko.

Zer egin zenuen zuk ikasketak bukatu ondoren?

Frantziara joan nintzen, bertan erizain-eskaintza handia zegoelako eta banekielako Gabonetan eta Aste Santuan baino ez nuela lan egingo hemen. Urrik ekainera bertan egon eta udan itzuli nintzen Osakidetzan lan egitera. Gauza bera egin nuen hurrengo urtean. Erizainen beharra handiagoa Ingaltarran, Frantzian, Portugalen eta Italian dute, baina Frantzian eskaini zitzaizkidan lan-baldintzak ziren onenak. Sei hilabeteko kontratua egin zidaten, kontratu hori berritzeko aukera nuen eta bizilekua topatu zidaten, gainera.

Zein ezberdintasun topatu duzu Frantziako eta bertako sanitatearen artean?

Etterik ez dutenek izan ezik, beste guztiek sanitatea ordaindu behar dute Frantzian, baina emandako diru-portzentaje bat itzultzen zaie gero. Beste alde batetik, izugarri zaintzen dute langileria, profesionalen beharra dutelako. Ospitaletik alde egin nuen egunean galdetu zidaten zergatik

“Zerbitzu berezi batean izatea gustatuko litzaidake: asko ikasi behar dut oraindik eta ikasteko gogoia daukat”

uzten nuen lana, ospitalearekin arazorik banuen konponduko zutela... Eta ez dago oposaketarik. Curriculumak utzi, eta kito. **Osakidetzarako oposaketak egingo zenuen...**

Bai, 2002. urtean. Zazpi mila erizain aurkeztu ginen berrehun plaza ingururako... Plaza eskuratzeko azterketaren puntua-zioa, euskara eta lan eskarmentua hartzen dira kontuan. Argi dago langileak aukeratzeko sistemaren bat erabili behar dela, baina ezin duzu zure ezagutza erakutsi ordu batean... Nahiko estresagarria izan daiteke lau urterik behin oposaketa egin behar izatea, Osakidetzan urteak eta urteak eman arren, oraindik plazarik lortu ez dutenentzat.

Askok ez deritzote ondo euskara puntugarria izateari...

Nire ustez, euskara jakitea ez litzateke meritua izan behar, baldintza baizik. Beno, ez nioke inori lan egiteko eskubidea ukatuko, baina euskara exijituko nieke plaza dutenei, behintzat. Herrialde euskaldunetan dauden ospitaleetako langileak kontzientziatuago daude gai horrekin, baina euskara inposatzen ari izanaren kexa dago orokorrean. Eta ez da egia, langilearen oso portzentaia handia ez delako euskalduna. Frantziara joan nintzenean ez nuen bertako hizkuntza ezagutzen, baina ikasi nuen gogoz edozein hizkuntza ikasi ahal delako... Beste alde batetik, ez dut ulertzen euskaldun zaharrek ezin izatea puntu horiek lortu, agiririk ez dutelako.

Galdakaon zerbitzu batetik bestera ibiltzen zara; zeinetan gustatuko litzazuke lan egitea?

Zerbitzu berezi batean, hau da, larrialdietan, zainketa intentsiboetan, hemodialisi zerbitzuan... Badakit gogorra dela, baina asko ikasi behar dut oraindik eta ikasteko gogoia daukat. Gaixo bat hiltzen zaidanean oso txarto pasatzen dut... Nik baino urte gehiago dituzten lankideek lasaiago hartzen dute... Eskarmentuak irakasten dizu hori.



Ikasketak bukatu ondoren, Frantzia aldera joan zen Aiala

“Lortuko dut, ziur nago”

Gaztea izatea beharrezkoa da Unibertsitatean hasteko? Lezamako M^a Jose Diazek ezetz erantzun digu. Emakumeak berrogeita hamabost urte ditu eta Kultura eta Solidaritateko Graduatuan izena eman du aurten Deustuko Unibertsitatean.

Zer dela eta animatu zara ikasketa horiek egitera?

Izugarri gustatzen zait irakurtzea eta bane-kien unibertsitatean aisiari buruzko ikasketak egiteko aukera zegoela. Egunkarian iragarki bat irakurri eta, oinarritzko ikasketak izatea beharrezkoa ez zenez, Deustura joan nintzen. Informazioa hartu eta inori ezer esan gabe eman nuen izena graduatu horretan. Semeak eta familia pozik daude, asko animatzen naute.

Nori dago zuzenduta graduatua?

Printzipioz mundu guztiari, baina neska gazte bat izan ezik, berrogei urtetik gorako berrogeita hiru lagun gaude klasean. Hiru urteko ikasketak dira eta ez dizkigute lana topatzeko balio izango; gure ezagutza aberasteko dira.

Zelan gogoratzen duzu klaseko lehenengo eguna?

Oso urduri nengoen, geldigeldi nire aulkian, zer esango zidatenaren zain... Baina txantxa apur bat egin genuen egun horretan. Lan gogorra hurrengo egunean hasi zen.

“Klaseko lehenengo egunean oso urduri nengoen, geldigeldi nire aulkian, zer esango zidatenaren zain...”

Apunteak hartzeko...

Oso txarto moldatzen nintzen hasieran! Azalpenak jarraitu eta apunteak hartu biak batera egitea oso zaila da. Nik dena idatzi nahi nuen eta, jakina, ezinezkoa zen... Apurka-apurka hobeto moldatuz noa, eta gai bati buruzko informazioa behar izanez gero Interneten bilatzen dut.

Zein nolako ikasgai duzue?

Literatura, musika, psikologia, lanak egiteko teknikak, nola egin inkestak...

Eta zein duzu gustuko?

Musika ikasgaia izugarri gustatu zait. Senarraren musika klasiko eta operako disko piloa dugu etxean, baina nik ez nien inoiz erreparatu. Orain, berriz, musika kla-



Txarto darama hainbeste ordu etxetik kanpo ematearena lezamarrak

sikoa entzuten hasi naiz, hobeto ulertzen dudalako. Literatura klasean emakumeek idatzitako lanak ikasi ditugu eta hori ere oso interesgarria iruditu zait: XVII. eta XVIII. mendeetan gainditu izan behar zituzten oztopoak... Duela gutxi Aisia eta bizi-kalitatea eta Gaur egungo gizartearen

“Esandako guztia idatzi nahi nuen hasieran eta, jakina, ezinezkoa zen”

jatorria ikasgaiekin hasi gara eta gustatuko zaizkidala uste dut.

Azterketarik baduzue?

Ez, lanen bitartez egiten dugu. Izena eman nuenean guztiok kultura maila berdina izango genuela pentsatzen nuen, baina ez, klasean denetarik gaude: irakasleak, kaze-tariak, erizainak... Pasa den hiruhilekoko lanak gogorregiak zirela kexatzen ziren batzuk eta nik honela esaten nion neure buruari: “Zer egiten duzu hemen? Horiek arazoak badituzte, nola egingo dituzu zuk?” Lanok aurkeztu ostean, tutorearekin

hitz egin eta ez nuela neure burua behar bezala baloratzen esan zidan, uste baino hobeto egin nituela... “Nola? Ez dudala neure burua baloratzen? Ikusiko duzu!” Egia esan, asko kostatu zait lan horiek egitea, baina nik neuk egin ditut, ez diot inori laguntzarik eskatu... Beno, bat egiteko bai, oso zaila suertatzen zitzaidalako... Pozik nago egindako ahaleginarekin. Hiruhileko berriarekin hasi gara eta zailagoa izango dela ematen du... Baina lortuko dut, ziur nago.

*“Hor nabil,
ordenadorearekin buelkata:
oihuka egiten diot,
haserretu egiten naiz,
alde egiten dut,
buelkatu egiten naiz...”*

Zelan konpontzen zara ordenadorearekin?

Ikastaro bat egin nuen aspaldian KZ gunean, baina ez nuen inoiz erabili behar izatea espero. Eta orain hor nabil, ordenadorearekin buelkata: oihuka egiten diot, haserretu egiten naiz, alde egiten dut, bueltatu egiten naiz... Laguntzarik behar izanez gero, semeei eskatzen diet. Eta etxean ez badaude, telefonoa hartu eta senideren bati deitzen diot.

Egunero ikasten duzu ala dena azken ordurako uzten dutenetariko bat zara?

Ez, ez, beharrak egunero egiten saiatzen naiz. Eta astirik izan ezean, asteburuetan egiten ditut. Gauza askori uko egin behar izan diot ikasteagatik... Bidaiatzeari, adibidez. Izugarri gustatzen zait. Gabonetan bidaia bat proposatu zidan lagun batek eta ezetz esan nion: “klaseko lanak egin behar



Musika eta literatura ikasgaiak izugarri gustatu zaizkio M^a Joseri

ditut, neska!”. Eta semeak lanetik itzultzen direnean etxean egoteari ere bai... Haien zain izatea gustatzen zait... Arratsaldeko 4etan treina hartu eta gaueko 9:30ak arte ez naiz bueltatzen... Txarto daramat hainbeste ordu etxetik kanpo ematearena.

Kafetegian orduak eta orduak ematen dituzuelako ospea duzue ikasleok...

Ez, ez. Gu helduak eta formalak gara. Ordu erdiko atsedendia egiten dugu eta ez dago denbora askorik kafetegian emateko.

Zelako giroa dago ikasleen artean?

Oso ona. Elkarren alboan gaudenok taldea osatu dugu hasiera-hasieratik. Ikaskide batzuk ez ditugu oraindik ezagutzen, baina horretan gaude... Afariak egiten hasi gara... Beste alde batetik, irakasleekiko harremana ere oso ona da. Izugarri laguntzen digute.

Ikasketak bukatzeko presarik ez duzu

*“Ondo pentsatu ondoren
hartu dut Unibertsitatera
joateko erabakia eta
ez dut etsiko”*

izango...

Ez, hala ere, ez ditut patxada handiegiz hartuko. Hasi eta bukatu egin behar ditut. Ondo pentsatu ondoren hartu dut unibertsitatera joateko erabakia eta ez dut etsiko.

Eta zein da erabaki horren ondorioa?


Astia nuen lehen eta gustatzen zaidan zerbaitez bete dut. Alde batetik, etxetik kanpo hainbeste ordu emateak damu egiten dit, baina, beste alde batetik, pozik nago.

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina

“Pilota ezin da Euskal Herrian gelditu, mundu osora zabaldu behar da”

Txorierrin baditugu pilotari onak, eta oso gazteak, gainera. Iker Amarika larrabetzuarra eta Txaber Zabala lezamarra gure harrobian hazitakoak dira. Frontis enpresak biak fitxatu ditu orain dela gutxi.

*Testua: Itxaso Marina
Argazkiak: Frontis eta I. M.*



Zelako eragina izan du zuengan Frontisek fitxatzeak?

Iker: Kalitate handiagoko partidua jokatzen nabil momentu honetan, eta ekonomikoki ere hobera egin dut. Horrezaz gainera, bat nator enpresaren proiektuarekin; pilotaren etorkizuna hortik doala pentsatzen dut.

Txaber: Afizionatu mailan zortzi urte eman ondoren, adinagatik zaila nuen profesionaletan debuta egitea. Ilusioa galtzen hasita nengoen, baina orain ilusioa berreskuratu dut. Pilotan hasiko banintz bezalada.

Debuta Abadiñon egin zenuen urtarrean. Nola gogoratzen duzu egun hori?

Nire kirol ibilbideko egunik politena izan zen. Txikitatik nire ametsa profesionala izatea izaten zen, eta debut egunean, gainera, Errandonearekin jokatu nuen.

Zuk, Iker, Frontisekin herrian egin zenuen uztailan...


Egun polita hori ere. Enpresa batetik bestera aldatzea aurrerapausoa delako, batez ere... Eta jarri zidaten partiduatik! Errandonearekin jokatu nuen Barberito eta Armendarizen aurka. Jende aldetik ere oso ondo egon zen... Pozik nago etapa berri bat hasten dudalako.

Txaber, nola bizi izan duzu afizionatuetatik profesionaletara pasatzea?

Pertsonalki ez da ezer aldatu... Beno, diru apur bat gehiago irabazten dugulako... Profesionalki, berriz, bai: maila desberdin batean gaude eta partidu bat irabaztea oso garrantzitsua da. Lehen errazagoa zen. Hainbat urtetan pilotari berberekin jokatuta, frontoira irten baino lehen jakiten zenuen zein partidu irabaziko zenuen eta zein galdu... Orain ehuneko ehun eman behar duzu partidu bakoitzean.

Aldaketa handirik nabaritu duzu Garfe eta Frontisen artean, Iker?

Dirua aparte, partiduen kalitatea. Adibidea lehen jarri dut: nire debutaren kartela. Armendariz, esate baterako, Asegarcen egon den atzelaririk punta-puntakoena izan da, eta orain ere bada. Txaberrek esan duen bezalada, partidu bat



Lagunak dira Txaber eta Iker. Elkarrekin eta elkarren kontra partida asko jokatu dituzte

irabazteko jokatu behar da jokatu behar dena... Profesional onekin aritzen gara orain, eta izen bat izaten dute. Izen hori zergatik duten euren jokoan ikusten da.

Zertan zabilzate orain Frontisekin?

Frontisek Pilotako Zirkuitu Profesionala antolatzen du. Zirkuitu hori bost txapelketak osatzen dute: Nafarroako Opena, Bizkaikoa, Arabakoa, Errioxakoa eta Gipuzkoakoa. Enpresako pilotari guztiok hartzen dugu parte bertan, eta partiduak irabazten ditugun neurrian puntuak akumulatuz goaz. Ranking-eko zortzi pilotaririk onenek Masterra jokatu dute.

Otsailean Arabako Opena izan da. Zu, Iker, finalerdira ailegatu zara eta zu, Txaber, txapeldunordea izan zara...

T: Alustiza eta Elolaren kontra jokatu nuen Arabako Openeko lehenengo partidua. Ordu eta erdi izan ginen frontoian... Eta Iker nire lagunaren aurka finalaurrekoan... Erraz irabazi genuen partidua hori, Amarike nahiko txarto ibili zelako eskueetatik (kar, kar, kar).

I: Bai, bai... Ez, eskuetatik txarto ibili nintzen, baina hori ez da aitzakia. Oso partidu

ona egin zuten Zabalak eta Ariznabarretak. Partidu horren ostean, klabikulan lesioa egin nuen entrenatzen ari nintzela, eta ezin izan nituen jokatu hirugarren eta laugarren postuak lortzeko partiduak.

Errioxa eta Gipuzkoako Openak izango dira laister. Emaizta onak lortzeko itxaro-

T: “Irabazteak garrantzia dauka, baina askoz garrantzitsuagoa da frontoitik gustura irtetea, galdu nahiz irabazi”

penik?

T: Ez dut horretan pentsatzen. Zaila da esatea zer egingo dugun. Ondo jokatzen ahaleginduko gara... Irabazteak garrantzia dauka, baina, galdu nahiz irabazi, frontoitik gustura irtetea da garrantzitsuen

I: Nire lehentasuna lesiotik osatzea da, eta gero gerokoak. Baina ranking-ean ahalik eta goren egoten saiatuko gara.

Aspe eta Asegarce enpresak Eskuz Binakako Txapelketarekin dabilzta orain. Jarraitzen diezue partiduei?

T: Bai. Argi dago pilota arloan lehenengo enpresak direla, baina txapelketa luzee-giak ateratzen ari zaizkie... Pilotari bat edo bestea finalera ailegatzeko interesak ikusten dira txapelketa hasi baino lehen. Laguntza handiagoa ematen zaie batzuei beste batzuei baino.

Frontisen ranking bat dago eta bikoteak orekatzen ditu horrek: lehenengo atzelaria azken aurrelariarekin... Baina atzamarrez egiten bada, edozein bikote osa daiteke finalera ailega dadin.

I: Enpresa-interesekin dabilzta eta lehiaketaz ez dago garbi. Enpresak esaten du: zuk, zuk eta zuk jokatu duzue eta besteak kanpora... Frontisek beste sistema bat erabiltzen du: pilotari guztiok parte hartzen dugu txapelketan, eta bat bigarren mailako pilotari txarra izan arren, partiduak irabazi ahala gorantz egingo du ranking-ean.

Eta pilotari onekin jokatzeko aukera izango du. Hori da sistemarik onena pilotariontzat.

Orduan, ez duzue enpresa horietan egon nahi...

I: Ez, momentu honetan halakorik ez dut planteatu ere egiten. Frontisen ahalik eta urterik gehien egotea gustatuko litzaidake.

T: Ados nago Ikerrekin. Enpresarik onenak dira, baina ezin badut neure jokoa erakutsi, nahiago dut bertan ez egon. Beno, ezin dut esan inoiz ez nintzaketela joango ez batera ez bestera, izan ere, badakigu, dirutza handia erabiltzen dute, telebista... Baina, ez, Frontiseko filosofia nahiago dut.

I: Adibidea jarriko dut: enpresa horietan hiru edo lau urteko kontratua duten bigarren mailako pilotari askok inoiz ez dute txapelketarik jokatu; herrietako jaialdietan baino ez dira aritzen, profesionaletan hainbat urte eman arren. Frontisen, berriz, pilotari txarrek ere badituzte eskubideak.

Zentzuk dira zuen etorkizunerako asmoak?

T: Frontiseko atzelaririk onena izan nahi dut.

I: Ni profesional mailan ahalik eta urterik gehien egin, eta Pilota Zirkuitu Profesionaleko lehenengoa izatea.

Pilotariak Filipinetara eramateko asmoa omen du Eusko Basquek. Baduzue iritzirik horren inguruan?

I: Japoniarrak pilotan interesatuta omen daudela entzun dut; Eibarko partidu bate-

Txorierrin egiten diren kultur ekitaldietan pilotarien presentzia indartzea beharrezkotzat jotzen dute gazteek

an hango kazetari bi egon ei ziren... Ez dakit, Filipinetan zesta-puntan jarduten dute, zergatik ez pilotan? Aurrerapausoa izan liteke. Frontisek ere aukera hori aztertu du bere proiektuaren barruan: zergatik ez eskaini txapelketa bat Kubari edo Filipinei, eta Zirkuitu Profesionalerako puntuagarria izatea? Tenisean, esaterako, hala egiten da.

Aspek eta Asegarcek ETBrekin lan egiten dute, eta ez dute pilota Euskal Herritik ateratzen. Akats handia da, pilota mundu osora zabaldu behar delako, nire ustez. Euskal Herriko kirola dela eta pilotarik

onenak bertan daudela esaten da, baina munduko beste herri batzuetan ere pilotan jokatzen dute eta ez dira pilotari txarrak. Azken mundiala Iruñean izan zen, eta trinketeko txapelduna nor izan zen? Kubatar bat.

Pilotaren presentzia gero eta handiagoa da telebistan...

I: Berez, ona da hori, baina Espainiako telebistak Euskal Herrian eta Gaztela Leonen baino ez ematen ditu partiduak, ez Estatu osoan...

T: Bai, ona da kirola jendeari hurbiltzen zaiolako. Baina kalte ere egiten dio: telebistatik hainbeste partidu botatzen direnetik asko kostatzen da frontoiak betetzea.

Ettxera bueltatuko gara. Nola gogoratzen dituzue Lezamako eskolan emandako urteak?

Oso urte politak izan ziren. Egundoko giroa zegoen pilotarien artean eta lagun handiak izan ditugu.

Elkarrekin eta elkarren kontra hainbeste partidu jokatu ostean, Iker, zer nabarmenduko zenuke Txaberrengandik?

Itzelezko atzelaria dela, esku biak onak ditu, kolpedun pilotaria da... Eta arraroa egiten zait debuta lehenago ez egitea. Bere jokoa eta irabazi dituen partiduak kontuan hartuta, lehenago merezi zuen profesionaletan egotea.

Eta zuk Ikerrengandik?


Aurreko koadroetan, hiru eta erditik aurrera, pilota hartuz gero gauza ziurra da



Iker Amarika

23 urte
Larrabetzu
Aurrelaria

Sei urte zituela Larrabetzuko ota eskolan hasi, eta handik bi urtera Lezamako eskolara igaro zen. Besteak beste, GRAVN txapelketa, Antiguakoa, Euskal Herrikoa eta Uribe Kostakoa irabazi ditu afizionatu mailan, eta txapel-dunordea izan da Federazioen arteko Txapelketan. Profesionaletan 21 urterekin egin zuen debuta Garfe enpresarekin, eta 2004ko uztailetik hona Frontis enpresako pilotaria da.



Txaber Zabala

26 urte
Lezama
Atzelaria

Lezamako pilota eskolan hasi zen, bost urte zituela, eta afizionatu mailan ia txapelketa guztiak irabazi ditu: Cafes Baque txapelketa, Bizkaikoa, herriaren artekoa, Diario Vasco txapelketa... Profesionaletara urtarrilean egin zuen salto Frontis enpresaren eskutik, eta otsailean txapeldunordea izan zen Arabako Openean.

I: “Aspen edo Asegarcen egoteko aukera planteatu ere ez dut egiten. Frontisen ahalik eta urterik gehien egotea gustatuko litzaidake”

tantoa egingo duela. Eta berari tantoa sartzea ere kostatzen da. Gaztetan ez zuen kolpe askorik ematen, gorputzagatik agian, baina denboraren poderioz kolpe gehiago hartuz doa. Gaztea da oraindik eta oso pilotari ona izan daiteke.

Zein modalitate nahiago duzue: bakarka ala binaka?

T: Ni ez naiz oso arin amaitzea gustatzen zaienetakoa, partiduak luzatzea gustatzen zait, trankil egotea frontoian... Binaka nahiago dut jokatu. Bakarka aritzeko oso ondo ikasi behar da sakeak eramaten, tantoak bukatzen... Eta hori guztia egitea oso zaila da.

I: Ondo entrenatuz gero ez naiz txarto moldatzen lau eta erdi barruan, baina nik ere binaka nahiago dut.


Jaietako pilota jaialdiak normalean Aspe eta Asegarcerekin egiten dira bertan...

Derion eta Larrabetzun Frontisekin ere egiten hasi da, baina orokorrean, bai, enpresa horiekin egiten dira. Badirudi pilotari profesionala izateko ezinbestekoa dela telebistan agertzea... Eta, ez. Gu ere bagara pilotari profesionalak eta haiek bezala entrenatu behar dugu. Udal askok mentalitate hori aldatu beharko lukete.

Zelan ikusten duzue Bizkaiko pilotaren maila?

T: Lan ona egiten gabilta, baina Nafarroaren mailara ailegatzeko asko falta da oraindik...

I: Ez nago ados. Oso maila ona dago



Pilota Zirkuito Profesionaleko lehenengoa izateko asmoa dauka Ikerrek

Bizkaian eta azken zazpi urteetan horrela erakutsi da GRAVNen eta Federazio arteko Txapelketan: bizkaitarrak txapeldunak izan gara modalitate eta maila guztietan. Baina enpresek pilotari bizkaitar bat izan beharrean nafar edo gipuzkoar bat nahia- go izaten dute. Bestela, zergatik ailegatu

“Ezin da ia milioi bi gastatu egun baterako, eta gero eskolako umeek esparatrapua erosi behar izatea”

da Zabala profesioaletara hain berandu?

T: Bizkaian asko kostatzen da jubeniletatik nagusietara salto egitea. Beste herrialdeetan gazteak berehala hasten dira nagusiekin jokatzen, eta bertan ere horrelaxe egin beharko litzateke. Beharbada ez lituzkete

hainbeste txapelketa irabaziko, baina pilotari egingo lirateke. Aukera gehiago eman behar zaie.

Eskola ematen duzue, zelan dator Txorierriko harrobia?

I: Nik orain ez dut ematen. Xaker kirol zerbitzuetarako enpresa sortu eta Larrabetzuko pilotalekuko instalazioen ardura hartu dut. Beno, eta herriko pilota eskolari laguntzen diot ahal dudan guztietan... Aurrerapauso inportantea egin da herri guztietan: pilota eskola dago eta Txorierriko txapelketa egiten da. Batzuek ondo jokatu ahalko lukete, baina futbolak kompetentzia handia egiten digu. Eta nera-bezaroa daukagu, gainera...

T: Bai, nik beste era batean bizi izaten nuen pilota. Arratsaldeko 6etan eskola banuen, 5:30ean frontoiko atean nengoen. Eta orain behartu egin behar dituzu jokatzerara. Eskolaz kanpoko ekintza gehiegi dute.

Zein da eskolen egoera?

Ez ona, ez txarra. Udalek eskolen egoera eta funtzionamendua hobeto ezagutu beharko lituzkete, izan ere, pentsatu baino gastu handiagoak izaten dituzte klubek: monitorea, epaileak, materiala, bidaiak... Eta gastu asko ezin dira kurtsoaren hasieran aurreikusi. Gehiago lagundu behar zaie ekonomikoki zein beste medio batzuen bitartez: arropa eman, tailerrak antolatu, hitzaldiak... Pilotarion presentzia ere indartu egin beharko litzateke Txorierrin egiten diren kultur ekitaldietan.

Egundoko frontoiak daude Txorierrin...

Bai. Udalek dirutza handia gastatzen dute jaialdi profesional bat antolatzeke; eta eskolei, berriz, oso dirulaguntza txikia ematen diete... Pilota profesionala herrira hurbiltzeari primeran deritzogu, baina oinarria ere zaindu behar da. Ezin da ia milioi bi gastatu egun baterako, eta eskolako umeek gero esparatrapua erosi behar izatea.

Profesioaletan debuta egiteko itxaropena galtzen hasia zen Txaber, Frontisek fitxatzeak ilusioa berpiztu dio





24 urteren ostean, elkarrekin

Lan handia izan da, baina Derioko eskolako ikasle ohiak berriro elkartu dira hogeita lau urte pasa ondoren. Eskola 1981ean amaitu, eta harrezkero ez dute elkarren berri askorik izan. Yolanda Martin izan da ikasle ohien elkartze hau bultzatu duena. Orduko ikasle zerrendak kontsultatu, telefonoz deitu, etxez etxe ibili, senideekin hitz egin... eta azkenean hogeita hamalau lagun batzea lortu du martxoaren 12an. Afari ederra egin ostean, parrandan ibili ziren goizeko ordu txikiak arte. Denetara izan zuten denbora: eskolako garaia gogoratzeko, elkarren berri emateko eta barre egiteko. Datorren urtean hitzordua izango dute berriro ere.



Etorkinek be euskaraz

Etorkinei zuzendutako eskuko euskerazko hiztegia kaleratu barri dau Txorierriko Mankomunitateak. Hiztegiaren bidez, hizkuntza ulertu eta ahal daben neurrian erabiltzeko bidea emon gura deusie. Lurdes Lasuen euskera teknikariak azaldu deuskuz hiztegiaren non-dik-norakoak.



Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Zelan sortu zan ideia?

Gipuzkoako alkarte batetik ailegatu jakun gutun bat, bertan proiektu hori martxan jarri ebela azalduz. Euskera Biziberritzeko Plan Nagusia aztertu zanean etorkinakaz be lan egitea beharrezkotzat jo genduan, eta hiztegia kaleratzea interesgarria iruditu jatan. Alkarbide Euskera Zerbitzuen Bilgunera jo, eta eurek zuzendu eben proiektua Bizkaiko hainbat udalerritan.

Helburua?

Hona etortzen diranean euren hizkuntza baino ez dabe ezagutzen eta gaztelania ikasten daben moduan euskera be ikasi leikiela uste dogu.

Herri bakotxean zenbat atzeritar egozan eta nongoak ziran ikusi eta hizkuntza gehiengo-

dunak hartu genduzan erreferentziatzat hiztegia egiteko orduan. Zortzi hizkuntza erabili doguz: euskera, gaztelania, ingelesa, frantsesa, portugesa, katalana, galegoa eta arabiera.

Zenbat ale kaleratu dira?

Txorierrin zortziehun eta hirurogeita bat etorkin dagoz eta mila hiztegi atera doguz. Bakotxari ale bat sartu jako gutunontzian eta udaletxeetan be itxi dira hainbat ale. Edonork eskuratzeko aukerea dauka.

Baliagarria izango da?

Bai, oinarrizko hitzak diralako: ama, aita, ogia... Hiztegia ez dago soilik kanpotarrei zuzenduta; Estatuko beste herrietako etorkinentzat be bada. Etorkinak gu baino kontzienteagoak dira, nire ustez. Lan bila datoz, eta lana topatzeko integratzea oso inportantea


da. Integrazinoaren lehenengo pausua hizkuntza izan leiteke. Beste alde batetik, oso eroso da tamainaren aldetik, eta kuriositatez erabiliko dabela uste dot.

Jarraipenik izango dau proiektu honek?

HABEk Aisa proiektua –etorkinentzako euskera klaseak– dauka eta hori izan leiteke jarraipena. Udalerrri batzuetan jarri da martxan, baina arrakasta gitxi izan dau, euskera ikastea oso ahalegin handia dalako eurentzat. Dana dala, integrazinoarekiko oso sentsibilizazio handia dabe, eta hiztegiak jakingura sortu leikioe. Horrezaz gainera, seme-alabarik izanez gero eskola publikora eroango dabe eta bertan D eredu da nagusi. Horrek be kuriositatea sortu leikioe... Lehenengo pausua kuriositatea izan leiteke.

Berba batzuk

Euskara	Gaztelania	Ingelesa	Frantsesa	Portugesa	Katalana	Galegoa	Arabiera (ahoskera)
Egun on	Buenos días	Good morning	Bonjour	Bom dia	Bon dia	Bos dias	Sabah al jawr
Ama	Madre	Mother	Mère	Mãe	Mare	Nai	Om
Mutila	Chico	Boy	Garçon	Menino	Noi	Mozo	Walad
Azukrea	Azúcar	Sugar	Sucre	Açúcar	Sucre	Azucre	Sokar
Hamaika	Once	Eleven	Onze	Onze	Onze	Once	Ehda achar



Goazen bada, Korrika!

Martxoaren 19an, Korrikaren 14 Txorierritik
igaro, eta irudi hauek utzi zizkigun

Argazkiak: Kaleko





“Euskal futbolararen alde lan egitera etorri naiz”

Iñaki Dobaran nahiko ezaguna da Txorierrin, izan ere, 14 urtean Zamudioko Klubaren buru izan da. Orain Euskal Futbol Federazioko presidentea dugu, hauteskunde korapilotsu batzuen ondoren. Baina ez da bakarrik ailegatu, Gerardo Dañobeitia lezamarra eta Mikel Aburto sondikarra alboan izango ditu.

Zergatik aurkeztu zinen Federazioko presidentetzara?

Lehenago Bizkaiko Federazioko hauteskundeak egin ziren eta hor ere aurkeztu nintzen zerrenda batean. Irabazi ostean, kide bizkaitarrek Euskal Federaziokoetan aurkezteko eskatu zidaten. Ondo pentsatu eta zelako sostengua neukan ikusi ondoren, baietz erantzun nuen.

Lehenengo aldia izan da hautagai bi egon zaretela. Horrek legitimitatea kentzen dizula uste duzu?

Ez, zergatik, ba? Demokrazia batean gaude eta ez dut uste ezer txarrik egin nuenik. Beste hautagaiak Araba eta Gipuzkoatik jaso du atxikimendutik handiena. Nik herrialde horietan zer edo zer lortu dut, baina atxikimendurik handiena Bizkaian hartu dut, batez ere. Gipuzkoan ez ninduten nahi, baina ez dakit zergatik. Ni ezezaguna banaiz, bestea askoz ezezagunagoa da, Federazioan denbora gutxiago darama eta. Beste alde batetik, Txorierriko talde guztiei eskerrak eman nahi dizkiet, den-denek lagundu didate eta. Kanpainan nengoela ezin izan nintzen bertoko herri guztietan egon, zoritxarrez, eta horregatik bar-katzeko eskatu nahi diet.

Esaten da ez diozula jarraipenik emango Laurentzi Gana aurreko presidentearen garaia...

Beno, berriak gara eta zer edo zer berri ekarriko dugu, noski. Hala ere, honek ez du esan gura Ganaren garaian egindako guztia apurtuko dugunik. Orain arte gauza batzuk ondo egin dira, eta horiek mantendu egingo ditugu.

Zer beritasun ekarriko diozu postuari?

“Txorierriko talde guztiei eskerrak eman nahi dizkiet, den-denek lagundu didate eta”



14 urtean izan zen Zamudioko Klubeko presidentea Dobaran

Berria zarenean, ilusioa, indarra eta lan egiteko gogoia ekartzen dituzu, baita estamentu guztiekin hitz egiteko asmoa ere. Eta hori guztia emango diot nik postuari. Aurrekoak 14 urtean egon dira Federazioan, eta horrek aspertu eta nekatu egiten du. Niri ere horrela gertatu zitzaidan Zamudioko Klubeko presidentea nintzenean. Euskal futbolararen alde lan egitera etorri naiz.

Zeintzuk dira euskal futbolararen gabeziarik nabarmenenak?

Beste leku askotan gerta daitekeen bezala, euskal futboleko arazo bi daude, batez ere: diru eta ikusle falta. Gogoratzen naiz lehenago gazteok futbol zelaien inguruan biltzen ginela, baina orain ez da halakorik gertatzen, aukera askoz zabalagoa baita. Beheko mailako futbola ikustera joaten garenok nagusiak gara.

Zer egingo duzu arazo horiek konpontzeko?

Diru falta konpontzeko, laguntza eskatuko

“Beste leku askotan gerta daitekeen bezala, euskal futboleko arazo bi daude, batez ere: diru eta ikusle falta”

diegu erakunde eta enpresa pribatuei. Ea denon artean hitzarmen bat egiteko gauza garen. Eta ikusleen kopuruari dagokionez, Ermuko adibideari jarraitzea aztertzen gabilta. Kanpainan hara joan eta euren sistema ezagutu genuen: gazteak futbolar joateko, doako txartel bana ematen diete. Lehenago gazteek futbolarako zuten grina berpiztu nahi dute horrela. Ekimen polita da eta beharbada martxan jarriko dugu.

Epaileen Batzordeak ere kezkatzen zaituela irakurri dugu. Zer gertatzen da?

Epaileak nahiko indibidualistak dira,

bakoitzak bere buruarentzat egiten du lan, ez taldearentzat. Horren ondorioz, harremanak ez dira onak izan. Orain arte komite horretan lan egin dutenak urte askotan egon dira eta bada aldatzeko garaia. Jende berria ipini behar dugu ilusioa berreskuratzeko. Ea gauzak hobetzeko gauza garen!

Euskal selekzioaren ofizialtasuna lortzeko pausorik egingo da zure agindupean?

Ikusiko dugu. Gasteizko Legebiltzarrerako hauteskundeak izango ditugu laster, eta irabazlearen arabera pausoak handiagoak edo txikiagoak izango dira. Orain arte gobernuan izan direnak —Eusko Alderdi Jeltzalea, Eusko Alkartasuna eta Ezker Batua— selekzioaren aldekoak izan dira. Geu ere, noski, aldekoak gara eta gustatuko litzaiguke pauso garrantzitsuak egitea. Eusko Jaurlaritza berriarekin hitz egin beharko dugu denok batera aritzeko edo

“Zaila izango da, baina udan euskal selekzioak partida bat jokatzeari nahi dugu”

bakoitzak zer egin behar duen aztertzeko. Gainera, kontuan hartu behar dugu Kataluniako Federazioko hauteskundeak ere aurki izango direla eta hautagai nagusia katalanista omen dela. Beraz, haiekin batera ere lan egin beharko dugu. Nola edo hala, ezin dugu bakarrik egin, politikariekin batera egin behar dena egingo dugu: legea hortxe dago eta ez dugu haren kontra joko.

Aspalditik esaten da euskal selekzioak bira bat egingo duela udan. Kontuan hartuko zenuke?

Ez dakit, polita izango litzateke. Orain urte batzuk aipatu zen, baina hori ondo antolatu behar da. Momentuz, partida bat jokatu nahi dugu udan. Hala eta guztiz ere, zaila izango da. Denboraldia berandu amaituko da aurten, eta partida hori jokatzeko gero jokalaria ia opor barik geratuko lirateke. Gainera, Athleticen Kopako finala jokatuko du, agian. Arazoak tituluren bat irabazteko lehian sartzeagatik etorriko balira, behintzat...

Hurrengo partidei begira, zein izango da egoitza: Bilbo ala Donostia?

Eta zergatik ez Iparraldean? Ez dakit, zaila da egoitzarena. Dirua kontuan izan behar da. Aztertu behar duzu zenbat jende etorriko den, estadioa nahiko handia izango den... Egia esan, ez dugu oraindik horretaz hitz egin.

José Ángel Iribar hautatzaile bietako batek selekzioa utzi nahi omen du. Hitz

“Iribarrek selekzioa uzten badu, zaila izango da euskal futbolaren totema ordezkatzeari”

egin duzu berarekin?

Bai, berarekin hitz egin dut eta selekzioa uzteko asmoa dauka, nekatuta dagoelako. Iritziz aldarazten saiatuko naiz; bestela, ordezkariaren bat bilatu beharko genuke. Argi daukagu ereduari eutsiko diogula, hau da, Athleticen inguruko entrenatzaile batek eta Errealeko beste batek aukeratzeko dituzte jokalaria. Gainera, uste dut Errealeko Miguel Etxarrik jarraitu egin nahi duela. Dena dela, zaila izango da Iribar bezalako euskal futbolariaren totema ordezkatzeari.

*Testua eta argazkiak:
Gaizka Eguskiza*

Hitz laburretan

–**Izena:** Iñaki Dobaran.

–**Adina:** 54.

–**Jaioterria:** Loiun jaio zen, baina Zamudiora ezkondu zen.

–**Futboleko hasierako pausoa:** bere lehenengo partida C.D. Loiun jokatu zuen “fitxa barik eta Zamudioren kontra, gainera”. Geroago, Zamudioko maila guztietan entrenatu du eta presidente izan da 14 urtean.

–**Hauteskundeetako emaitzak:** guztira emandako 124 botoetatik 65 jaso zituen Dobaranek; Luis Mari Elustondo Erandioko presidentea, berriz, 58 boto lortu zituen; boto bat zuriz eman zen.

–**Futboletik kanpo:** Zamudion egiten du lan enpresa batean. Herri berean lau urtez izan da alkateorde.

“Ematea bezain garrantzitsua da laguntza onartzea”

Txorierriko Caritas duela urte bi sortu zen, bultzatzaileek arazo nagusi biri konponbidea eman nahi zitelako: alde batetik, zaharren bakardadeari eta beste alde batetik, etorkinen egoera gatzari. Zorione Aldasoro eta Raquel Lopez harrera-programaren arduradunekin eta Tomas Cortazar eta Pili Gaztañaga nagusiei laguntzeko-programaren ordezkariekin izan gara berbetan.

Testua: Itxaso Marina



Bakardadea da nagusien arazorik handiena

Azaldu, mesedez, zertan dautzan proiektu horiek.

Nagusientzako programari dagokionez, boluntarioak astean ordu bi ematen dituzte adinekoarekin: solasean izaten dira etxean, kalera irteten laguntzen dio... Etxean zein Sondikako zaharren egoitzan ematen dugu zerbitzua eta lauorgeri urtetik gorako nagusiak izaten dira normalean, baita gaixorik dauden gazteago batzuk ere. Bakardadea da euren arazorik nagusia... Eta gehienak emakumeak dira, andre-alargun gehiago dagoelako eta gizonak gehiago kostatzen zaielako bakarrik daudela onartzea.

Etorkinen arazorik nagusienak lana eta diru beharra dira. Gehienek ondoto eza gutzen dituzte euren eskubideak eta informazio gutxi eman behar zaie. Bilboko Norabide enplegu-zerbitzura, Caritaseko abokatuengana eta arropadendetara eta Behargintzara bidaltzen

ditugu normalean. Paperak eskuratzeko ere jotzen dute guregana... Beste alde batetik, bertokoren bat laguntza eske etortzen bazaigu, horri ere laguntzen saiatuko gara.

Nongo etorkinak izaten dira?

Gehienak Hegoamerikatik datoz, errumaniar eta marokoar batzuk ere badaude. Hizkuntza arazoa da azken horientzat eta langabezian dauden bitartean Derioko APARA bidaltzen ditugu ikastera. Zaila da lana topatzea gizonentzat; emakumeentzat errazagoa da, etxeko lanak egiteko eskaintza handia dagoelako. Lagunen bitartez topatzen dute gizonak normalean... Txorierrin ikusi dugunaren arabera, gizon baino emakume gehiago etortzen dira: bizilekua lortu ondoren familia ekartzen dute.

Zenbat pertsonari ematen diozue zerbitzua?

Nagusientzako programaren barruan

hamar lagun daude. Sondikako zahar-etxeak beste bati zerbitzua emateko eskatu digu, baina ez daukagu boluntariorik. Eta etorkinentzako programan berrogei bat izango dira. Udaletako gizarte-laguntzaileekin hitz egin, eta gauza bera sumatu dugu: Txorierriko etorkinek erraztasuna dute lana eta etxebizitza topatzeko. Euren egoera kontuan hartuta, ez dira txarto bizi.

Harremanik baduzue Udalekin?

Bai, eskaerarik gehienak gizarte-laguntzaileen bitartez ailegatzen zaizkigu. Anbulatorioetan ere publizitatea uzten dugu, parrokiatik zabaltzen dugu informazioa... Kuriosoa da, etorkin askok bitarteko barik jotzen dute guregana; nagusiek ez.

Kostatzen zaigu laguntza eskatzea?

Bai, asko kostatzen zaie nagusiei edota gaixorik daudenei, batez ere. Zaila suertatzen zaie euren gauzak kontatzea ezezagun bati. Boluntarioa eta nagusia elkarre-

“Txorierriko etorkinek erraztasuna dute lana eta etxebizitza topatzeko. Euren egoera kontuan hartuta, ez dira txarto bizi”

kin txarto konpontzea gerta daiteke, gainera... Edo mesfidantza dute. Gizarte-laguntzaile eta medikuen lana ezinbestekoa da horretan, euren fidatzen direnez lana errazten digutelako.

Etorkinei dirulaguntzaren bat ematen zaie...

Bizkaiko Caritas bi mila eta bostehun bat familiak osatzen dute eta kuota bat ordaintzen dute urtero. Caritasek erabiltzen duen dirua kuota horietatik eta urte-

an zehar dirua biltzeko egiten diren lau kanpainatik ateratzen da. Horrezaz aparte, ez dugu beste laguntzarik jasotzen... Ez legoke txarto Mankomunitatearekin hitz egitea! Kontu bat zabaldu dugu eta seiehun euroko dohaintza egin digu ezezagun batek.

Zenbat boluntario zabiltzate lanean?

Nagusientzako programan hamabi lagun Derion eta Sondikan, eta etorkinentzakoan zortzi Zamudion. Horrek ez du esan Txorierriko beste herrietan zerbitzurik emango ez denik, baina herri horietan ez da atera ez boluntariorik, ez jenderik.

Boluntario beharrik duzue?

Bai, lehen esan dugun bezala, Sondikako zahar-etxeak boluntario bat eskatu digu, baina ez daukagu... Etxe askotan pertsona batek zaintzen du gaixoa edota nagusia, eta horiei ere lagundu eta zama arintzea gustatuko litzaiguke. Eta jendea behar dugu horretarako ...

Zein da Txorierriko Caritasen boluntarioen perfila?

Adinekoekin lan egiten dutenak hirurogeita bost urtetik gorako emakumeak dira normalean, baina gazteagoak ere badaude. Eta etorkinentzako programan aritzen direnak berrogei urtetik beherakoak dira. Urtero egin behar dugu kurtso bat: etorkinen arazoei buruz, bakardadeari buruz, hirugarren adinari buruz...

Eta ze baldintza bete behar du boluntario batek?

Denbora libre apur bat besteei emateko gogoia izatea, entzuten jakitea, besteen ideiak errespetatzea eta diskretua izatea. Besterik ez.

Esker-ordaintzeko lana da zuena?

Bai, norekin hitz egin ez dutenei laguntzen zaielako. Apur bat psikologoak gara, eta mesedegarria da pertsona horientzat... Gehiago egin nahi izango zenuke batzuetan, baina ezin duzu eta amorrua ematen dizu... Hala ere, gure mugak eza gutzen ditugu eta arazoei gehiegi ez larritzen saiatzen gara.

*“Abegi pisu bi
zabalduko dira
laster Larrondon”*

Ettxera eramaten dira arazo horiek?

Bakoitzaren arabera. Ettxera ailegatu eta gai jakin batekin bueltaka ibiltzen zara batzuetan... Dena dela, egoera horiei aurre egiten prestatzen gaituzte kurtsoetan. Eta poz handia da lokaletik pasatzen direnean gu agurtzeko... Pertsona batek zure laguntza onartzen duenean berak ere zuri lagunduko balizu bezala da. Ematea bezain garrantzitsua da laguntza onartzea.

Kanpainarik antolatzen duzue Txorierriin?

Caritasek kanpaina ofiziala egiten duene-

an bertoko proiektuak ere bultzatzeko aprobetxatzen dugu. Eta gure programak zabaltzen ditugu informazio-foiletoren bidez, taldearen lanaren berri ematen dugu elizan... Arropa-bilketa egin genuen azaroan eta arrakasta izan genuen: tona bi arropa bildu zen. Apirilean beste kanpaina bat egiteko asmoa daukagu. Arropa Sondikako elizako lokaletan batuko da.

Zeintzuk dira zuen planak etorkizunari begira?

Lehenengo eta behin, nagusi eta etorkinentzako programak Txorierriko beste herrietara zabaldu nahi ditugu. Ea boluntariorik agertzen den. Beste alde batetik, abegi-pisu bi zabalduko dira laster Larrondon. Pisuok, Amor Misericordioso ikastetxeak emandakoak, etxebizitza behar duten emakumeak eta euren seme-alabak hartzeko erabiliko dira. Altzariak batzeko kanpaina jarri dugu abian, eta jasoz goaz... Zerbitzu hori atzerritarrei zein bertokoei eskainiko zaie, alboetako herrikoei ere bai. Horrezaz gainera, ondo legoke atzerritarrei zuzendutako tailerrak egitea eta eurek elkarteren bat osatzeko bidea ematea.

Txorierriko Caritas: 665703130

Kontua: BIK 209503688091-0600365-0

**Etorkinentzako harrera-programa:
astearteetan, arratsaldeko 5:30etatik**

**7:30ak arte, Zamudioko
Elxaldeko plazako lokalean**

Antisorgailuak: kontuan hartzekoak

Antisorgailuen munduan azken urteotan agertutako berrikuntzak zein lehendik zeuden metodoak orriotara ekarri ditugu, eguneroko bizitzan garrantzia itzela dute-lako. Honetarako AIKOR! aldizkariak Goizeder Uria larrabetzuarra eta farmazeuti-koa elkarriketatu du. Datuok aztertutakoan, bakoitzak, adina eta harreman motaren arabera, metodo desberdina aukeratu beharko lukeela da atera daitekeen ondorio-rik aipagarriena. Beraz, arretaz irakurri!

Aukerak:

Sexu harremanetarako bi metodo nagusi daudela, "sexuztea" ez baita metodotzat hartzen, esan beharra dago. Alde batetik, hormona bidezko metodo multzoa eta, bestetik, kondoiarena. Adin batetik aurre-ra, gizon zein emakumearen antzutea, hau da, basektomia nahiz tronpen lotura aukera ezin hobea izan daiteke. Hautaz gain, badira antzina erabiltzen ziren metodo naturalak, ugalkortasunean oinarrituak, baina euren eragingarritasuna ez da konfiantza handirik emateko modukoa, gaitzak baitira egoki erabil-tzen.

Gazteak eta han-hemenkako harremanetan...

Gazteentzat eta harreman iraunkorrik ez dutenentzat sexu bidezko gaixotasu-nak ekiditeko metodo baliagarri bakarra kondoiarena da. Eta hau oso kontuan hartzeko oharra da, zeren eta HIES-a, sifilia eta beste hainbat gaixotasun eki-diteko beste modurik ez baitago. Beraz, honelako edozein harremanen aurrean kondoa erabili beharko dugu edo, bes-tela, atzera egin beharko dugu. Gure bizitza osoa jokoan egon daiteke-eta.

Aukeratu baino lehen

Hormona bidezko edozein metodo aukeratu baino lehen erabat beharrez-koa da ginekologoarekin kontsultatu, eta horren ostean ondoen datorkiguna aukeratu dugu, beti ere adina eta

gure ezaugarriak kontuan hartutakoan.

Hormona bidezko metodoak

Metodo hauek guztiak emakumeei zuzenduta daude, eta euren oinarria, dosi ñimiñoetan, hormonak askatzean datza. Hormona hauek emakumearen obulua umetokian kokatzen eragozten dute eta, ondorioz, ernalkuntza aurrera eramatea. Ikus ditzagun, beraz, haueta-ko batzuk:

–Ahotik hartzekoak: Aspaldikoak Neogynona, Ovoplex, Microgynon, ... Gehienak 21 egunean hartu behar dira hil guztietan. Berrien artean Yasmin aipatu beharra dago.

–Larru bidezkoak: txaplatak edo partxeak. Larruan erazten dira. Asteko bat, hiru astean hil guztietan. Hormonak larruaren bidez jasotzen dira. Arazoak: estetika eta askatzeko arriskua. Berrien artean Evra oso erabilia da.

–M a g i n a - e r a z t u n a : maginan jartzen den 54mm-ko eraztuna. Hiru aste irauten du. Erabili-enen artean Nuvaring dago.

–Larru azpian jartzeko-ak: Besoaren larru

HIES-a edo sifilia moduko gaixotasunak ekiditeko modu bakarra kondoa erabiltzea da

azpian jartzen dira eta euren eragina 3 urtetik 5era doa. Euren eragina oso da handia, baina hilerokoan arazoak sor-tzen dituzte kasu askotan. Euren artean Implanon eta Jadelle daude.

–Intrauterinoak: Kobrezko DIUak eta Mirena. Oso eraginkorra.

Metodoen eraginkortasun maila

Metodoa	Benetako eraginkortasuna	Eraginkortasun teorikoa
Metodo barik	85	85
Coitus interruptus	27	4
Emakume-kondoa	21	5
Gizon - kondoa	15	2
Aho-pilulak	8	0,3
Txaplata-partxea	8	0,3
Magina-eraztuna	8	0,3
Kobrezko DIUa	0,8	0,6
Mirena intrauterino	0,1	0,1
Emakumea antzutu	0,5	0,5
Gizona antzutu	0,15	0,15

0-1 Oso eraginkorra / 2-9 Eraginkorra / 10-30 Pitin bat eraginkorra / >30 eraginkortasun txikia

Hurrengo eguneko pilula

Ez da antisorkuntza meto-doa, eta emergentzia kasuetan baino ez da era-bili behar.

Hartzeko momentua	Eraginkortasuna
<24 ordu	%95
24-48 ordu	%85
48-72 ordu	%58

Euskal Herriko Hizkuntza-adierazleen Sistema

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Herriko Hizkuntza-adierazleen Sistema (EAS) aurkeztu du duela gutxi. Sistema hori euskararen egoeraz eta Euskal Herrian luze-zabal agertzen duen bilakaeraz informazioa eskuratzeko tresna da, eta agente publikoei, euskararen erabileraren normalizazio prozesuan dihardutenei eta hiritarrei zuzenduta dago.

EAS www.euskadi.net/euskara_adierazleak helbidean dago, eta bertan kontsulta mota bi egin daitezke: gaika eta udalerrika. Gaika aukera zabalduz gero, bost eremu nagusi agertuko dira: testuingurua, baliabideak, lege-garapena, esparrukako programak eta emaitzak. Eremu bakoitzaren barnean adierazle ezberdinak biltzen dituzten azpi-eremuak ere badaude.

Bigarren kontsulta motak, berriz, udalerri baten egoera soziolinguistikoa ezagutzeko aukera ematen dio erabiltzaileari, sistemaren zenbakizko adierazle nagusien laburpenaren bidez.

Informazioa eguneratuta dago, eta uneoro eskuragarri dauden daturik berrienak eskainiko dira, baita aurreko urteetakoak ere.



Iradokizunak

www.hiru.com

Hizkuntzaren bat ikasteko gogoia, baina astirik ez? Ba, Eusko Jaurlaritzak errazten dizu "hiru.com" atariaren bidez. Bertan e-LEA programa jarri dute abian, eta ingeleza, frantsesa, alemana eta italiera ikasten lagunduko dizu.

Programa inguru birtual batean eta informazioaren teknologietan oinarrituta dago, eta ordenadorearen erabilerari buruz

zerbait jakinda, euskal herritarrei edozein tokitatik eta edozein momentutan hizkuntzak ikasten laguntzeko diseinatu da.

Metodo honi jarraitu nahi badiozu, baita eskuratu beharko duzu. Eta auto-ikaskuntzarako materialaz gainera beste hainbat zerbitzu izango dituzu: harremanetarako telefono bat edota Eusko Jaurlaritzak xede horretarako homologatutako zentrozen sareko irakasleen bidezko jarraipena eta tutoretza, besteak beste. Zerbitzu horien erabilera aukerakoa izango da.

Euskarazko itzultzailea 2006. urterako

Eleka ingeniariak linguistikoko enpresa itzulpen automatikoko sistema lantzen ari da. Sistema horrek espainieraz dauden testuak eta web orriak azkar euskaratzeko aukera emango du. Proiektuaren arduradunek hurrengo urtean kaleratzeko asmoa dute, baita Interneten eskegitzekoa ere.

Sondikako baserri-ondarea

Bizkaiko beste herri askok bezala, Sondikak hainbat aldaketa izan ditu industria eta hiri garapenaren ondorioz. Garapen horren adierazgarririk nabarmenena aireportua da. Landa-ingurune gutxi dago Sondikan, baserri auzoen lekuan urbanizazioak eta lantegiak dira orain.

Antzina eraikitako baserri batzuek zutik irautea badute ere, Sondikako baserri-ondarea hondatuz joan da eta etxe asko galdu dira denboraren poderioz.

Herriko etxerik zaharrena Zangroiz auzoko Torretxu baserria da. XVI. mendearen bigarren zatian eta hurrengo mendearen hasieran eraikin ugari egin ziren: Izartzako Kamino baserria, Arestiko Arestierdikoa, Beikeko Boskotxe, Asuako Etxepinto, Zangroizko Enekone eta Gaskoetxe... XVII. mendearen amaieran, Larrondogoikoa eta Ugalde baserriak eraikin zituzten.

Beikeko Palacios baserria eta Olako Jauregia dira XVIII. mendeko landa-arkitekturako eraikinik adierazgarrienak. Bolumen kubiko handiko etxetzarrek dira eta lau isurialdeko teilatua dute, baita fatxada nagusiaren zabalera estaltzen duen balkoia ere. Uribeko merindadeko beste leku batzuetan gertatzen zen legez, etxe horiek jauregizat hartzen ziren estruktura bitxia zutelako —bertan bizi zen jendearen leinuagatik izan beharrean—.

XIX. mendean baserriek ataripea baztertu, eta barruko atariak jarri ziren haien ordeiz. Eta estilo neoklasikoaren arauak jarraituz, aurrealdeko baoek koa-drikula zurrin bat osatzen zuten.

Sondikako baserri-ondareko eraikin preziatuenetarikoa bat, duda barik, haize errota zaharra da, Artxanda mendian. Aixerrota 1725eko abenduaren 10ean inauguratu zen, Manuel de Bildosolak eraiki ostean. Bizkaian egin zen lehenengo haize errota da Sondikakoa, eta hura eredutzat hartuta, beste batzuk altxatu ziren harrezkero: Getxoko Aixerrota, Ispasterko Aixeder eta Sopolako Arnabar.



Urkiaga jauregi-etxea (Ola jauregia)



Asuako Etxepinto baserria

Txorierrin egiten dan edozein musika motaren gaineko informazioa, analisiak, kritikak, aipamenak eta kronikak plazaratuko doguz Aikormusika atal barruan. Zeuon ekarpenak eta iritziak be bialdu ahal dozuez aikormusika@yahoo.es helbidera.

Jon Maia, Karidadeko Benta taldeko kidea

“Ezin izango nuke gure musika deskribatu”

Korrika Kulturalaren ekitaldien barruan, Karidadeko Benta taldea izan genuen Derion martxoaren 12n. Jon Maiari egin genion elkarritzeta.

Zenbat zarete, nortzuk eta zer egiten duzue?

Sei lagun gara, bost Zumaiaokoa eta bestea Soroluzekoa, forastero bakarra. Badaramatzagu lau urte edo, eta bi disko argitaratu ditugu eta oso gustura gabiltza *Amore amore* bigarren diskoa aurkeztuz.

Nola deskribatuko zenuke zuen musika?

“Deskribaezina” erabiliko nuke deskribatzeko. Hori gustatzen zaigu, ez dugu nahi enkasilatzea... Diskoa entzun duenak badaki ezin dela dena musika estilo batean sartu. Oso bariatua da, denetarik dago, kantu alaiak, tristeak, intimoagoak... Pixka bat da bidaia bat paisajez paisaje, munduz mundu kantutik kantura. Azkenean atmosfera oso bariatua sortzen da.

Zelan aurkitu duzu gaurko giroa?

Oso publiko lasaia iruditu zait. Lekuak ere asko egiten du: honen tankerako leku formal batean ba jendea ere oso formal egoten da, eta nik uste dut gaur hori gertatu dela. Eta zein da zuentzat lekuri gustukoena? Beharbada, ez leku handiegia eta, ahal bada, mugimendu askatasuna duen lekua; hau da, nahi baduzu erre, erre; nahi badu-

zu edan, edan; nahi baduzu dantzan egin, dantzan..., pixka bat atmosfera festagarria edo sortu litekeen lekua.

Eta aurrera begira, zuen proiektuak zeintzuk dira?

Orain kontzertu asko daukagu, batez ere batetik bestera ibiliko gara abenduan atera genuen bigarren diskoa aurkeztzen. Jira bat Italiatik egitea ere eskaini digute... eta aprobeztatuko dugu amorea zabaltzeko.

Euskal Herritik kanpo ere ibili zarete...

Santiago Konpostelakoan bi kontzertu egin ditugu, Bartzelonan ere egon gara eta harrera izugarria izan dugu.

Bertsolaria zara, zuei buruz zer esaten dute beste bertsolariek?

Gehienek barre egiten dute tontoarena egiten ikusten nautenean... Gero esan behar da egin ditugula aportaziotxo batzuk ere, bertso soinu berri batzuk atera ditugu orain plazetan erabiltzen direnak... Eta ikusten dugu publiko bertsozale asko daukagula. Nik ez dut asko bereizten bertsolari eta hemen egiten dudana, azken finean bietan naiz neu eta... Ez naiz abeslaria, nabaritzen zait bertsolaria naizela. Hemen



sekretoa da egiten ez dakizuna ez egitea.

Zeren bila zabiltzate emankizunetan?

Ez dugu nahi artista eta publiko banatuta egotea, ez zaigu interesatzen perfektzioa, sofistifikazioa, zein onak edo zein txarrak garan inork juzgatzea. Interesatzen zaigu festa giroa, komunikazio handiko giroa sortzea, prejuiziorik gabe etortzeko eta ondo pasatzeko asmoarekin.

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Ogi zopea garbantzua eta okela saldeagaz

Osagaiak:

Saldea egiteko:

- Garbantzua
- Zankarroia
- Zanahoria
- Porrua

- Gatza
- Zopea egiteko
- Ogia laban erreta
- Arrautza egosi bat

Prestatzeko era:

Egosi garbantzua, zankarria, porrua eta zanahoria saldea egiteko. Hau eginda dagoenean, pasau pasadoretik eta bota saldatara ogi kixkorra (laban errea) txikituta eta 90 minutuan egosten euki. Gero, arrautza, zanahoria eta zankarroi zati bat txiki-txiki eginda bota. Hau dana 15 minutuan egosten euki... eta on egin!



Mari Tere Onaindia

Izokin entsalada

Osagaiak (lagun birentzat):


- Letxuga
- Tomate eder bat
- Piper gorri bat
- Aguakate
- 100 g izokin
- Gatza
- Oliba-olioa
- Modenako ozipina

Prestatzeko era:

Garbitu letxuga eta moztu letxuga tira finetan. Tomatea eta piper gorria zuritu eta dadotan ebaki, eta aguakatea xerratu (ilargi erdi forman).

Aurkezpena:

Hartu plater bi eta imajinatu platera lautan banatuko dugula. Laurden batean tomatea eta piper gorria jarriko ditugu nahastuta.



Geratzen diren 3/4etan ohea egingo dugu letxugarekin. Horrela, beste laurden batean aguakate xerrak jarriko ditugu letxuga gainean. Hurrengo laurdenean izokin xerra. Azkena bere horretan utziko dugu. Osagai guztiak bere tokian kokatuta, gatza botako dugu. Ondoren, aparteko saltsaontzi txiki batean oliba-olioa eta Modenako ozipina jarriko ditugu.

www.sukaldeon.org

LIBURUAK

Barroetarrak B. Arrizabalaga.

1967. urtean gaztelerazko bertsioa argitaratu zanean hone-
la esaten eban kritikak:
"Barroetarrak beharbada lehe-
nengo euskal eleberria da.
Euskaldunek idatzitako eleberri
asko dago, baina hau da lehen
aldia euskal idazle batek bere
herriko paisaia fisikoa eta psiko-
logikoa erakusten dituen".

Laguna. D. Miles.

888 txiste. Kike Amonarriz.
Txorakikeriak. 4

DISKOAK

Nafarroako kantu zaharrak.
Hiru Truku

Izan zaitez zu. Kauta

**Basque Country: Biscay and
Guipuzcoa.- The spanish recor-
dings.** Alan Lomax estatubatuar
etnomisika adituak 1952. urte-
an Euskal Herrian zehar eginda-
ko grabaketen bilduma aurkez-
ten deusku disko honetan.
Zeanurin, Ondarroan, Zarau-
tzen, Oiartzunen, Tolosan eta
Donostian bildutako 38 doinu
eta abesti.

It's time. Michael Bublé

DENBORA PASA

LETRAZOPA

S	R	K	B	F	E	Q	J	H	O	D	N	T
R	A	E	L	O	T	X	E	L	E	R	R	I
A	I	N	I	D	U	D	L	G	L	J	X	G
G	B	U	E	D	L	A	X	T	E	R	A	P
O	R	E	L	S	J	R	N	P	E	M	E	F
I	F	P	B	A	T	T	Q	M	P	A	L	O
K	O	R	M	N	K	E	Z	G	D	S	O	A
O	F	R	E	G	O	A	B	M	A	F	K	P
L	K	H	X	R	H	G	K	A	S	B	I	N
A	H	T	I	O	K	A	E	P	N	Z	R	H
N	G	R	Z	I	D	T	R	F	D	N	R	X
D	Z	G	K	Z	U	F	I	M	A	X	A	J
A	K	L	B	O	G	B	T	D	K	H	S	B

A	B	D	E	J	A	E	Z	T	U	R	U	K
N	L	K	B	G	R	S	D	A	N	T	K	D
D	P	O	S	M	R	N	J	P	B	F	P	G
F	R	F	I	H	I	R	A	K	I	K	L	S
L	E	P	A	R	A	N	O	L	T	Z	A	M
D	N	L	G	N	G	K	T	A	J	X	R	L
M	O	E	L	S	A	M	I	M	I	E	R	G
J	K	L	Z	O	R	D	N	B	F	X	O	N
O	E	N	G	P	R	Z	E	L	P	I	N	H
E	D	B	S	J	P	O	T	H	D	Z	D	K
K	L	P	M	A	I	S	N	Z	K	M	O	R
P	A	N	A	X	K	J	Y	O	R	F	Y	L
B	K	H	P	J	B	R	F	H	M	D	O	G

Aurki itzazu ondoko letrazopan
**Txorierriko beste 7 auzoen
izenak.** Herri bakoitzeko bana
dago. Erantzuna jakin nahi
baduzu hurrengo aldizkarian
agertuko da.

Kontutan hartu goitik behera,
behetik gora, ezker eskuin,
eskuin ezker zein diagonalean
aurkitu daitezkeela.



Antzerkia eta filmak

Sondika. *El planeta del tesoro* eta *Spiderman II*, apirilaren 3an, 16:30ean eta 19:00etan, hurrenez hurren.

Hermano oso eta *El rey Arturo*, apirilaren 10ean, 16:30ean eta 19:00etan, hurrenez hurren.

Ametsen lapurra eta *Catwoman*, apirilaren 17an, 16:30ean eta 19:00etan, hurrenez hurren.

Por los pelos, Txalo Produksioak taldearen eskutik. Apirilaren 22an, 21:00etan.

Zomorroak, Txalo Produksioak taldearen eskutik. Apirilaren 23an, 17:00etan. Umeentzako antzerkia.

Atlantis eta *La vuelta al mundo en 80 días*, apirilaren 24an, 16:30ean eta 19:00etan, hurrenez hurren. Guztiak kultur etxean.

Zamudio. *George eta herensugea*. Apirilaren 3an, 17:30ean, Bilboko Ideales zineman. Doraemon gladiadorea eta Ned Kelly. Apirilaren 10ean, 17:30ean eta 19:30ean, hurrenez hurren.

Yu Gi Oh, la película eta *El Álamo, la leyenda*. Apirilaren 17an, 17:30ean eta 19:30ean, hurrenez hurren.

The best of the momix antzezlan. Apirilaren 22an, 20:00etan, Arriaga antzokian.

Ipuin kontalaria. Apirilaren 23an, 12:00etan.

Los increíbles eta *El puente de San Luis rey*. Apirilaren 24an, 17:30ean eta 19:30ean, hurrenez hurren.

Lezama. *Alfonbra magikoa*. Apirilaren 22an, arratsaldeko 19:00etan, Kultur Aretoan. Ipuin kontalaria.

Larrabetzu. *Txarriketan Berriketan*, apirilaren 22an, 17:30ean, kultur aretoan. Ipuin kontalaria.

Erakusketak

Zamudio. *Argazkiak Txiletik*, Iosu Fernandezek eskutik. Apirilaren 4tik 21era arte.

Euskalherria, Iosu Fernandezek eskutik. Apirilaren 25etik maiatzaren 6ra arte.

Larrabetzu. Juan Atxutegiren olioak. Apirilaren 25etik maiatzaren 6ra arte.

Hitzaldiak

Sondika. *Txorierritik Andesetara*, Jon Aroztegi, Gotzon Zubiaur eta Javier Gorosperen eskutik. Apirilaren 8an, 19:30ean, kultur etxean.

Lezama. *Brasileko Lur Gabeen Mugimendua*. Apirilaren 8an, 20:00etan, kultur aretoan. Oxangoiti kultur elkarteak antolatuta.

Larrabetzu. *Literatura Historikoa*, Toti Mtz. de Lezearen eskutik. Apirilaren 20an, 19:30ean, kultur aretoan.

Irteerak

Zamudio. Urkulura (Iparralde). Apirilaren 23an, Arroeta mendi taldeak antolatuta.

Lezama. Iturrieta mendietara (Araba). Apirilaren 17an, Gailur mendi taldeak antolatuta.

Santoñara. Apirilaren 23an, Adintsuen elkarteak antolatuta.

Gaztela-Mantxara. Maiatzaren 27tik 29ra bitartean, Laiak emakume elkarteak antolatuta.

Kirola

Lezama. Pilota Eskolaren Txapelketaren hasiera. Apirilaren 9tik aurrera, pilotalekuan. Pilota elkarteak antolatuta.

Gomazko Pale-tako Txapelketa Sozialaren hasiera. Apirilaren 16tik aurrera, pilotalekuan. Pilota elkarteak antolatuta..

Plater tiroketa. Foso Unibertsaleko Bizkaiko Kopa. Apirilaren 30ean, 10:00etan, Errekaxun. Lezurmendi elkarteak antolatuta.



Musika

Sondika. Jazz, Marmara Dixieland taldearen eskutik. Apirilaren 15ean, 21:00etan, kultur etxean.

Bestelakoak

Lezama. Umeentzako berbena. Apirilaren 10ean, 17:30ean, plazan/pilotalekuan.

Larrabetzu. Port Abenturarako bidaian izena emateko epea: apirilaren 4tik 8ra arte, liburutegian.

Etxeko brikolaje ikastaroan izena emateko epea: apirilaren 4tik 8ra arte liburutegian.

Por los pelos antzezlan ikustera joateko izena emateko epea: apirilaren 5etik aurrera, liburutegian.